



LEKUALDATZE-LEHIAKETA (ESTATALA)

2024-2025

steilas

Eremua:

Estatala.

Eskaerak eta merezimenduak:

Azaroaren 5etik 26ra, biak barne.

Parte hartzaileak

1. Derrigorrezkoak:

Praktikaldian daudenak (K)
Behin-behinekoak (J)
Suprimituak (E)
Beste batzuk...

2. Borondatezkoak:

Behin betikoak (A) (2 urte eta gero)
Beste batzuk: eszedentzia batzuk...

Parte hartzea derrigorrezkoak

Praktiketako funtzionarioak:

Parte hartzea derrigorrezkoa da.

Dokumentaziorik ezin da aurkeztu,
EPEko ordenarekin parte hartzen da
(karrerako funtzionarioak eta gero).

Ofizios plaza eman ahal dute, bakarrik:
EPEko espezialitatean eta aurtengo
lurraldean.*

Esleitutako plazari uko egiterik ez dago.

Behin-behinekoak:

Parte hartzea derrigorrezkoa da urtero,
behin betikoa lortu arte.

Dokumentazioa aurkeztu ahal dute eta baremoan
aukeratu: *mantendu, gehitu, berria.*

Ofizios plaza eman ahal diete, bakarrik:
EPEko espezialitatean eta aurtengo
lurraldean.*

Esleitutako plazari uko egiterik ez dago.

* Zein lurralde historikoan eman ahal didate lanpostua ofizios?

- Parte hartzen ez bada edo lurralde historikoaren atala betetzen ez bada, 2024-2025 ikasturtean behin-behinean edo praktketan zerbitzuak bete dituen lurralde historikoan soilik esleitu ahal izango zaizkio lanpostuak ofizios (Musika eta Arte Eszenikoetako kidegokoak izan ezik).





- 2024-2025 ikasturtean behin-behinean zerbitzua ematen ari den edo praktika-aldian dagoen lurraldeaz bestelako lurralde historiko bat aukeratzen den kasuan, adierazitako lurralde historiko horretako lanpostuak soilik esleitu ahal izango zaizkio ofizioz (Musika eta Arte Eszenikoetako kidegokoak izan ezik).
- **Lurralde historiko bat baino gehiago hautatu nahi badira**, aplikazioko 3. orrian adierazi eta lehentasun ordena ezarri behar da.

Behin betiko lehen destinoa, EPEn egindako espezialitatean

lortu behar da. Salbuespenak

- **Latineko eta Grekoko** espezialitatekoak. Kultura Klasikoko lanpostuak ere eskatu ahalgo dituzte.
- **Pedagogia Terapeutikoa** espezialitateetako funtzionarioek eskatu eta lortu ahal izango dituzte: maisu-maistren kidegoan (36) eta DBHko lehen bi mailetan (60).

OHARRA: espezialitateen kodeak ikusi (deialdiaren IV. Eranskina).

Ofizioz ez dira esleitzen

Maisu-maistren kidegoan:

- Helduen Hezkuntza (HHI/CEPA).
- Zereginen Ikaskuntzarako Gelak (ZIG).
- DBHko lehen bi mailetakako lanpostuak.
- Lanpostu ibiltariak.

BHn eta "Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoan":

- Helduen Hezkuntza (HHI/CEPA).
- Zereginen Ikaskuntzarako Gelak (ZIG).
- Curriculum aniztasuna (Dibertsifikazioa).
- Hizkuntza indartzea.
- Elebidunak.
- Ibiltariak (Hezkuntza-Orientabidea HHI/CEPAn).

Lekualdatze-lehiaketan lanposturik lortu ezean?

- Ikasturte hasierako **esleipenetan** (IKHA-COCU) parte hartu behar da, hurrengo ikasturterako lanpostua lortzeko (ordezkoen aurretik).
- Egon zaren ikastetxea zure **erreferentziazko ikastetxea** da. Ikasturte hasierako esleipenetan erreferentziazko ikastetxeari uko egin ahal izango zaio, azken bi ikasturteak ikastetxe horretan igaro ondoren*.
 - Lehentasuna duzu erreferentziazko ikastetxean (suprimituen, desplazatuen... ostean).
 - Ez da lehiatzen lekualdatze-lehiaketa puntuazioarekin.

* Salbuespenak egon daitezke.



Suprimitu modalitatean lehiatu

Suprimituak:

- Derrigorrez parte hartu behar dute, bestela ofizioz esleituko diete lanpostuak egonda.
- Lehenetsuna eskubidea ez bada erabiltzen: ezin da hurrengo deialdietan berriz erabili eskubide hori; lanpostu bakarra jar daiteke, jarri ez direnak ez dituzte ofizioz esleituko.
- Lehenetsuna erabiltzen bada: ofizioz esleiri dezakete BAKARRIK lehenetsuna erabili duzun herrian.
- Lehenetsuna: ikastetxean edo/eta herrian edo barrutian.

Behin betiko modalitatean lehiatu

Behin betikoak:

- Dokumentazioa: *mantendu, gehitu, berria*.
- Uko egin ahal diote **prozesuari**, behin-behineko ebazpenaren hurrengo 5 lanegunetan.
- **Maisu-maistrek:** dituzten espezialitate guztiak erabil ditzakete. Zerbitzu orrian EPEn ateratakoa bakarrik agertuko da.
KONTUZ!! Beste espezialitate bat duenak, **habilitazioa EIZU bidez eskatu beharko du** (LAL eskaera epea amaitu baino lehen), horrela Zerbitzu orrian agertuko da.
- **Bigarren Hezkuntzakoek:** oposizioetako espezialitatea baino ez. (Helduen Hezkuntza, ZIG gelak, Curriculum aniztasuna... har ditzakete, beti ere zure espezialitateak aukera ematen badu, deialdian zehazten da).

Merezimenduen baremoa (Aginduko I. Eranskina)

Ofizioz barematuko dira Hezkuntza Saileko zerbitzu orrian jasota daudenak (O).

1. Antzinasuna (O)

- 1.1. Antzinasuna ikastetxean.
 - 1.1.1. Ikastetxean behin betiko gisa.
 - 1.1.2. Ikastetxean behin-behineko gisa.
 - 1.1.3. Zailtasun bereziko lanpostu edo ikastetxea.
- 1.2. Antzinasuna kidegoan (karrerako, praktiketako edo bitarteko funtzionario).
 - 1.2.1. Kidegoan.
 - 1.2.2. Beste kidegoetan azpitalde bereko edo >
 - 1.2.3. Beste kidegoetan azpitalde <

2. Katedraduna izatea (5 puntu)

3. Merezimendu akademikoak (O) (10 puntu gehienez)

- 3.1. Doktoregoa, graduondokoak, aparteko sariak eta masterrak (Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutako masterrak ez).



- 3.2. Unibertsitateko beste titulazio batzuk: gradua, lehen ziklokoak, bigarren ziklokoak.
- 3.3. Hizkuntza Eskola Ofizialek*, Musika eta Dantza Kontserbatorio Profesionalek eta Goi Mailakoek eta Arte Eskolek ematen dituzten Araubide Bereziko irakaskuntzen titulazioak, bai eta Lanbide Heziketako goi mailako zikloek.
- * Hauek 3.3. edo 5.5. atalean sar daitezke (bakarrik atal batean).

4. Karguak (30 puntu gehienez)

- 4.1. Zuzendaria. (O)
- 4.2. Zuzendariorde, ikasketaburu, idazkari edo antzekoetan aritu izana. (O)
- 4.3. Beste irakaskuntza-funtzioak: tutoretza, ziklo-koordinatzailea, mintegi, departamentu edo saileko burua, etengabeko prestakuntzako aholkulari edo hezkuntza eta psikopedagogiako orientabide taldeko zuzendari aritu izana (10 puntu gehienez).

OHARRA: 4.1, 4.2 eta 4.3 funtzio horietako bat baino gehiago ALDI BEREAN izatean, EZ DIRA METATUKO eta parte-hartzailearentzat onuragarriena hartuko da kontuan.

5. Prestakuntza eta hobekuntza (O) (15 puntu gehienez)

- 5.1. Gainditutako prestakuntza jarduerak (9 puntu gehienez).
- 5.2. Emandako prestakuntza jarduerak (3 puntu gehienez).
- 5.3. Beste espezialitate bakoitzeko (EPEn bidez).
- 5.4. Konpetentzia digitala (3 puntu gehienez).
- 5.5. Atzerriko hizkuntzak. Europako Erreferentzia Marko Bateratukoak.

6. Beste merezimenduak (15 puntu gehienez)

- 6.1. Argitalpenak (8 puntu gehienez).
- 6.2. Ikerketa edo berrikuntzako sariak (2,5 puntu gehienez). (O)
- 6.3. Meritu artistiko, kirol edo literarioak (2,5 puntu gehienez).
- 6.4. Hezkuntza administrazioko lanpostuak. (O)
- 6.5. EPEn epaimahaikidea. (O)
- 6.6. Gradu edo Masterraren praktiken tutorea.
- 6.7. Eskatzen den euskara maila baino altuagoa izatea (5 puntu gehienez). (O)

